

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Zuzendaritza Nagusiak XX. mendeko bigarren erdiko Nafarroako zinematografoen inguruko lan bat editatu du

2016an Nafarroako Administrazioaren Artxiboak sustatutako Zinema Aretoa, Nafarroako zinematografoak (1940 - 1990) proiektuaren emaitza da lana

Osteguna, 2017.eko abenduak 21

Kultura Zuzendaritza Nagusiak *Los cines de Navarra, 1940-1990* liburua editatu eta gaur goizean aurkeztu du, [Zinema Aretoa, Nafarroako zinematografoak \(1940 - 1990\)](#) proiektuaren emaitza gisa. 2016an sustatu zuen proiektua Nafarroako Administrazioaren Artxiboak, kultura-jarduera horren historia berritzeko helburuarekin, bere momentuan erabilera horretara bideratzen ziren eraikinen desagertze azkarra zela eta ahaztuak izateko arriskuan zeudelako.



Liburuaren azala

Artxiboak gaiari buruzko dokumentu-bilduma garrantzitsua zeukan bere esku, balioan jartzearekin batera Nafarroako Gobernuko beste unitate batzuetako materialekin handiagotu nahi zuena. Horretarako, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko, Liburutegien Zerbitzuko, Nafarroako Filmotekako, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko Kartografia Zerbitzuko eta Kultura Zuzendaritza Nagusiko Argitalpen-saileko dokumentuak bildu dira. Gainera, gaiari lotutako dokumentu eta oroitzapenak gordetzen zituzten pertsona guztien elkarlana eskatu zen, eta argazkiak, kartelak, sarrerak, kartak, mapak, esku-programak, prentsa-zatiak, kromoak, karteldegia eta bestelako material grafikoak jaso ziren jada itxita dauden eta ahaztuak izateko arriskua duten herri eta hirietako zinema-aretoetatik. Material horiek

bikain ilustratzen dituzte garai haiek, non zinema herri-jarduera garrantzitsua zen. Horiei esker jaso ahal izan da proiektu honen eduki ikonografikoaren parte handiena.

Liburu honen 700 ale inprimatu dira, 432 orrialde dauzkana eta 20 euroko prezioan salduko dena. Liburuaren aurkezpena dela bide, erakusketa txiki bat jarri da Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, urtarrilaren amaierara arte publikoari irekita egongo dena.

Liburuaren edukia

Montxo Armendarizen «Aquellos maravillosos cines» hitzaurreak irekitzen du liburua, eta horren ondoren dator Foru Komunitateko Administrazioaren Artxiboak sustatutako proiektuari buruzko sarrera bat, Susana Herreros, Elena López eta M^a Teresa Solak sinatzen dutena.

Horren ondoren, lokalen arkitekturari buruzko kapitulu bat garatzen da, Javier Torrens-eren eskutik. Administrazioaren Artxiboan gordetako eraikitze-proiektuei buruzko dokumentazio ugariak Nafarroako zinema-aretoetako eraikuntza-gustuen bilakaera marrazteko bidea eman du; gerraondoan sortutako toki askoko eta barrualde handioseko haieetatik hasita, "auzoetako zinema-areto" xumeetatik pasa (Erriberri, Gelbentzu, Aitor) eta zinema-areto parrokialetara iritsi arte. 60ko hamarkadan irekita zeuden 20 areto irekien artean erdia baino gehiago ziren areto parrokiak horiek. Gainera, ez dira multizineak ahaztu behar, zeinak gerora aretoen tamaina txikituz eskaintza handiagotuko zuten, 70eko hamarkadan telebistak eragingo zuen lehia biziari estrategia komertzial batekin erantzuteko asmoz.

Beste bi kapitulu daude segidan: Cristina Leza eta Francisco Benavent-ek landutako «La programación cinematográfica» batetik, 50eko hamarkadan *Haizeak eraman zuena (Lo que el viento se llevó* gaztelera) bezalako filmen iritsiera nabarmentzen duena, estreinatu eta hamarkada bat beranduago. Elizak egiten zuen jardueraren kudeaketa, publikoak zehazteko klasifikazio moral zorrotz bat ezarriz, eta baita Zentsura Batzordeak ere (1945-1977), zeinak filma aretoetara iritsi edo ez erabakitzen zuen, eta nola iristen zen ere bai, "beharrezko" mozketak inposatuz. Gehienbat familiei zuzenduta zegoen programazio haren artean, Hollywood-eko urrezko ureetako izenburuak alde batera utzita, film espainiarrak, frantsesak eta italiarrak ere igaro ziren Nafarroako pantailetatik.

Alberto Cañadak sinatzen duen «Evolución técnica y empresarial» kapituluak doa ondoren, non zinematografia-tekniken bilakaera aurkezten den, exigentziaz bete; ikatz-linternetan oinarritutako lehen proiektoreak, zeinen manipulazioa arriskutsua suertatzen zen eta txartel profesionala behar zen horiek maneiatzeko, kabina-buru, operadore eta laguntzaile batekin batera; xenon-lanparen eta cinemaScope-aren iritsiera; eta, azkenik, soinuaren bilakaera, biltze-sentsazioa ematen duena, 4 kanal eta soinu banda desberdinen bitartez (elkarrizketak, efektuak, musika...). Bilakaera teknikoarekin batera, enpresa-transformazioa ere aztertzen da, kasu askotan eraikinen jabeak izan diren tokiko ekintzaileen bidetik eman dena, herritarrei entretenimendua eskaintzeko asmoz.

Liburuaren atal nagusia katalogoa bera da, 169 zinema-aretori buruzko informazioa jasotzen duena. Lokalak herriaren arabera daude ordenatuak eta establezimendu bakoitzak orrialde bikoitza dauka, non datu hauek jasotzen diren: lokalaren helbidea, titularra edo jabea, proiektzio-aretoaren edukiera, erabilitako proiektorea eta irekiera- eta itxiera-datak, edo Artxiboan informazioa jasotzen hasi zeneko datak. Zinema-areto bakoitza, gainera, Artxiboko dokumentazioarekin, lokaleko argazkiekin, kartekin, esku-programekin, sarrerekin eta bestelako materialarekin ilustratu da.

Liburuak, horrez gain, beste areto "ez ofizial" batzuen inguruko informazioa ere ematen du, errealitatea osatzeko erabilgarri izan direnak. Izan ziren, hain zuzen, beste proiektzio-lokal batzuk ere, ikastetxeak, parrokiak, kafetegiak, kasinoak, bainuetxeak, langile-erakundeak edo jolas-zentroak esaterako, enpresa-inkripziorako izapideak formalizatu ez zituztenak. Ondorioz, dokumentazio hori ez da Administrazioaren Artxibora iritsi, eta ez da katalogo honetan jasotzen. 16 mm-tan proiektatzen zuten parrokiako zinema-aretoen kasuan, parrokia-aretoetara proiektzio-zintak bidaltzearen ardura zeukan Elkarte Diozesiarrak (1956-1996) osatu ditu zenbait testigantza.

Azkenik, 1940-1990 urteetan zinearen inguruan antolatutako ekitaldietako kartelen aukeraketa txiki bat ere jasotzen du liburuak, jatorria Nafarroako Liburutegian, Lege Gordailuan, Foru Komunitateko Administrazioaren Artxiboan eta Nafarroako Filmotekan dutenak.

Eraitza kolorez betetako liburu bat da, eta baita testigantzaz jositakoa ere, non munduari begiratzeko leiho handi bakarra zinema zen garai bateko kultura zinematografikoaren berri jasotzen den.